

Nafarkaria

• ostirala • 1997ko azaroaren 7a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Vianako ikastolaren bideoa • Bargetako Johanes aztiaren historia bitxia.

Enrique Urdanoz • Herrialdeko lehenengo airetaxiaren sortzailea.

Gure aukerak • Anariaren kontzertua Iruñeko Erraldoien Txokoan.



Pablo Sarasate Orkestraren krisia

Pablo Sarasate Orkestra
krisi ekonomiko larrian
dago azken lau urteotan.

Irtenbidea aurkitu nahirik, Gobernuak eta Santa Cecilia elkarteak arazoak bideratu eta konponduko lituzkeen Fundazioa eratuko dute urte amaierarako.



Viana • Johanes Bargotako aztiaren historia gogoratzuz

Erentzun ikastolak aztiaren historia jasotzen duen laburmetraia ekoiztu du

Erentzun ikastolak berak grabatu, muntatu eta ekoiztutako *Johanes, Bargotako aztiaren historia* izenburua duen laburmetraia aurkeztu berri du. Filmean aztiaren bizitzaren inguruko hainbat pasadizo kontatzen dira.



Johanes Bargotako aztia jaio zen etxea, Vianan.

KRISTINA BERASAIN

E KAITZ GAU BATEAN HARTUTAKO sugandila baten buztana, El Cueton bildutako lurra, Fuente Viejan jasotako belarra, saguzaharraren odola, kirikinoaren arantzak, arranoaren habian hartutako harria, herensugearen hezurra, aker baten adarra eta patxaran txurrustada ederra lapikora botaz, Agilarreko kondea berpizten saiatu ziren behin Johanes Bargotako aztiak eta Endregoto sorginak, akelarreko erreginak. Hori eta gisa horretako bertze hainbat pasadizo kontatzen dira Vianako Erentzun Ikastolak filmatu, muntatu eta ekoiztutako *Johanes, Bargotako aztiaren historia* laburmetraian. Horretaz gain, aztiaren jaiotza, bitxiakeriak, Inksizioarekin izandako autu-mautuak, Endregoto sorgin itsuarekin gertatutako pasarteak eta bertze aunitz istorio.

Bargotako aztia 1500 urtean jaio zen Bargotan. Laburmetraian

aipatzen denez, garai hartako unitbertsitaterik ospetsuenetarikoa batera ikastera joan zen, Salamanca, hain zuzen. Baina, hiri horretan, ikasketak ez ezik, aztiakeriak egiten eta zenbait belarren balioak ikasi omen zituen. Historian zehar hainbat kondaira uzartu bazaizkio ere, benetako pertsonaia izan dela ziurtatzen da. Hori bai, hitz egiten ez bazuen ere, euskara ulertu ulertzen zuela erraten dute pertsonaiaren inguruan idatzi diren hainbat liburuk.

Historia ezagutu

Fultxo Crespo Vianako Ikastolako irakasleak esan duenez, istorio hori aukeratzera bultzatu duten arrazoi asko izan dira. «Ikusten genuen pertsonaia mamitsua, dibertigarria eta interesgarria zela. Umeek erraz maitatzen dituzten

horietakoa, bihurria gainera». Horrela, filmaren bidez bete nahi zizuten xedeak gauzatzea errazagoa izan da. «Gure helburua umeek bertako historia ezagutu zezatela zen, hala nola medio honetara hurbildu eta, nolabait, euskara bizitzako beste alorretan erabiltzea bultzatu».

Filma Erentzun Ikastolak egin dako hirugarrena da, eta gidoia Felix Cariñanos historialari vianarra idatzi du. Bideoak hogei minutuko iraupena du. Ikastolak 90 ikasle baditu ere, laburmetraian 60 bat ume hartu dute parte, hain zuzen ere 6 eta 12 urte bitarteko ume koskorrek. Josu Uriz 11 urteko umea da Johanesen rola egiten duena, baina Bargotako aztiarena egiten badu ere, hauxe esan digu: «Ni ez naiz aztia». Lana erraza izan dela dio Josuk. «Gi-

doia izan da lan zekenena, bestela lana polita izan da». Hori bai, filmaketaren bidez aztia nor zen jakin ahal izan du; izan ere, ordura arte aditutako hainbat zurrumurruen bidez bakarrik susmatzen zuen zein zen asmagina.

Bideoa ekainean hasi ziren grabatzen eta irailean amaitu zuten muntaia. Grabazioan zehar bizi izandako anekdota ugari ere grabatu dituzte bost minutuko bideo txo batean, irribarrea sortarazi nahian. «Anekdotak barra-barra ditugu», azaldu du Crespok. Vianako ikastolak Johanes Bargotako aztiaren hesoholek zuten izen bera dute: Erentzun. «Arenchu hesitik hartu zuen ikastolak izena, hori ere mirari bat bezala jaio baitzen», diote filmaren bukaeran.

→ Kristina Berasain

Larraun

Aldazko festak asteburuan

LARRAUNEN URTEAN OSPATZEN diren azkeneko jaiak dira Aldazkoak. San Martin Eguna datorren asteartean denez, gaur abiatuko dira herriko festak. Egurdiko 12:00etan ezkilak hasiko dira dilin-dolon, eta orduan ere aieratuko da su-ziria. Horrenbestez, aurtengo festak hasiko dira. Ekitaldiz beteriko bost egunez gozatu ahal izango dira aldaztarak, baita bertara hurbiltzen diren guztiak ere. Musika gaur eta bihar Haritza taldearen esku izango da, eta gainerantzeko egunetan, berriz, Modesto soinu jolearen arduraz izango da. Baina beste-lako musika ere entzungo da: bihar, 19:00etan eliz musika izango da herriko komentuan.

Badira gauza bitxiak Aldazko festa egitarauan. Esaterako, gaur, goizaldeko 5:00etan sorgin afaria izango da. Jakina da Araitz-Betelu eta Larraunen sorginak betidanik izan direla. Txapelketak ere ez dira falta. Nola ez, mus zale guztiek beren abilezia erakusteko aukera izango dute, egunero-egunero kanporaketak izango baitira gero asteartean finala jokatzeko. Toka txapelketaren txanda, berriz, astelehenean izango da, egurdiko 12:00etan.

Araitz-Betelu eta Larraun aldeko herri gehienetan egiten den modura, Aldatzen ere izango da etxez etxeko erronda. Astelehen eguerdian izango da. Hamabietatik aurrera, eta eguerdi parte guztian, herriko bizilagunak etxez etxe ibiliko dira, gosaria eta dirua biltzeko asmotan.

→ Urko Aristi

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



D isko asko dagoen etxeek ez bezala, liburu biterik daudenek harritu egiten dute bisitaria, erasan egiten diote. Ehun diskotik goiti dagoen lekuan bisitariak zera dio bere golkorako: «hau tipo alai!» (onik onenean), «hau tipo parrandazalea!» (gehienetan).

Liburuak, aldiz, larderia sortzen du. Hala ilustratuek nola jantzigabeek objektu sakratutzat daukate. Eta gauza sakratuekin broma gutxi. Hortik sineskeriak eta ontzeko asmoak. Jende horrek kiloak galdu nahi dituenaren bertigoa eta gorabeherak bizi ohi ditu.

Tarteka leitzen duenak pentsatzen du maizago egin beharko lukeela, eta inoiz egiten ez duenak afera lehen bait lehen erremediatu behar duela, berak gaztetan egin ez badu ere, buruarina eta axolagabea izan delako, bere seme-alabek bide hoberik hartuko dutela.

Harrak eta

«Irakurtzeak ez dizu kalterik egiten», errepikatzen diete gurasoek, «kirola egiten duten bitartean drogatik libre egonen dira behintzat» esaten dutenen komentzimendu berarekin.

Horregatik da hain erraza liburuak saltzea. Gainera, liburutegi itxurosoa osatzeko inbertsioak ez du zertan izan hain haundia. Nahikoa da liburu lodiak erostea. Saltzen ari nintzen batean liburu berdeak eskatu zizkidan atso batek, eta egongelako altzarien koloreak deskribatu zizkidan. Faszikuloak gomendatu nizkion.

Faszikuloak eta entziklopediak udazken hasieran erosi ohi dira. Uda oporretan igaro duenari har batek jaten dio barrena. Udako oigantzaz oroitzeak urduritu egiten du. Faszikuloak erostean etortzen da bere onera. Apalategia beteagoa ikusita errazago hartzen du amasa.

Irakurzaile direla edo izan direla diotenen artean ere gero eta desosegu haundiagoa nabari daiteke. Progre-sista indargabetuak izaten dira gehienak, eta aholku eske etortzen zaizkio garai bateko lagun ustez jantziagoari. Haien arteko harroskoenek «...baina arina eta dibertigarria izan dadila, eh!», gaitzitzen diote liburu artean lasai zebilen lagunari, eta euskaraz idatzia-ri buruz ari badira «irakurterraza», gaineratuko dute.

Negargarri geratzen dira, baina ez da, ez, hain erraza konplexurik gabe gizontzea edo denen aurrean agerian uztea zure iharduna aspaldi ikasitako esaldiz josita dagoela, eta simulakroa amaitu zaiela. Orduan amesgaiztoak: jainko ilun batek belaunikatzeko esaten die, liburuak beso luzatuen muturietan jarrita.

Ez da dudarik. Gure maisu-maistrek lan bikaina egin zuten.

Baztan-Bidasoa

Ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoak hasiko dira gaur

BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOAK Ehizari buruzko Jardunaldi Gastronomikoak antolatatu ditu. Jardunaldiak gaur hasiko dira, azaroaren 30a arte iraunen dute, eta Baztan-Bidasoako hermeretzi jatek hartuko dute parte. Antolatzaileek diotenez, eskal gastronomiaren aberastasunak ehizan dauka aparteko adibidea eta hori bultzatu nahi dute ekimenarekin. Ehiza garaia dela aprobetxatuz aberastasun hori guztia erakustea egokia iritziz diote antolatzaileek. Usoak, basurdeak, oreinak, erbiak eta oilagorak toki garrantzitsua dute zonaldeko sukaldaritzan. Antolatzaileen arabera aukera paregabea da egunotan Baztan-Bidasoa bailaretan murgiltzeko eta bertako jatek txetan «ehizarekin egindako menu goxo bat dastatzeko».

Jatetxeek aukera zabala eskaintzen dute eta menuak 1.500 eta 4.000 pezeta bitartean (60-160 libera) daude. Beste plater batzuen artean, jardunaldietara hurbiltzen denak usoa edo oreina saltsan, basurdea ardo saltsan edota olagorra sagarrarekin dastatu ahal izanen du.

Altsasu

Udalaren proposamena onartu du Gobernuak N-1 errepideari buruz

N-1 ERREPIDEAREN AZKEN ZATIAREN DESDOBLAMENDUA, Altsasuko lotunetik mugarainokoa, Altsasuko Udalak Nafarroako Gobernuari proposaturiko bidetik joango da. Etxegarateko bikoizketarako lau alternati-

ba zeuden. Proiektuko hirurak gehi herriko Udalak Nafarroako Gobernuari aurkeztutakoa. Joan den asteazkenean, Jose Ignacio Palacios Herrilan kontseilariak eta Departamentuko teknikariak Altsasun izan ziren Udalak proposaturiko bidea ontzat ematen zutela adierazteko eta Udalaren esku geratzen zela lau alternatiben arteko aukeraketa. Horrela, udal zinegotzien adostasun osoarekin urriaren 31n egindako udalbatzarrean Udalak aurkeztutakoa onartu zuten Altsasuko zinegotziek. Beraz, N-1eko azken zatia bikoizteko errepidea ez da Ulaiargo dermiotik pasatuko, eta horren ondorioz, gaur egun dauden eta etorkizunean izan daitezkeen nekazari edota abeltzainen ustiaketak errepidearen meatzutik at geratuko dira. Adostutako erabakia Nafarroako Gobernuari jakinarazi diote bikoizketa proiektuaren eskaera egin dezan. Bestetik, Herrilan Sailari bi pasabide eskatzearekin bat etorri ziren zinegotzi

guztiak: batetik, Donibane Ermitakoa behin betiko egiteko, eta beste bat Zangitu eta Ondarria elkartzeko.

Bestetik, Udalak FMko irrati lizentziak emateko garalan Iruñea eta Iruñerrirako euskarazko zerbitzua eskaintzeko gai izanen den irratiari emateko eskatzen dio. Zinegotziek aho batez bozkatu zuten EAren mozioaren alde. Haatik, aldeko botoa jaso zuten gaur egun Domingo Lumbierreko eskolatan egiten ari diren ekaintzak, hutsik gelditu den Navarro Villoslada ikastetxeke eraikuntzan pasatzearekin. Horrela, besteak beste, Iñigo Aritzta ikastolako haurreskola eta haur hezkuntza etorkizunean beste eraikuntzara pasatu ahal izango dira, Domingo Lumbierreko obrak egiten direnerako. Ikastolako gela horietaz landa, Gure Etxean urtetan egon den musika eskola ere Navarro Villosladara pasatuko da.

→ Amaia Amilibia

Leitza



• AMAIA AMILIBIA

Ziordiarrek oraindik protestan

Ziordiarrek azken hilabeteetan egiten ari diren moduan, beste kontzentrazio bat egin zuten atzo. Oraingoan ez zuten Ziordiatik igarotzen den N-1 errepidea (argazkia) moztu, baizik eta Nafarroako Parlamentu aurrera eramane zuten euren protesta ekintza. Han Ziordiako Udala parlamentariekin bildu zen Nafarroako Herrilan Sailarekin duten arazoa azaltzeko. Jakina denez, ziordiarrek herria haren industrialdearekin elkartzeko autobia sahisteko sei metroko azpiko bidea eskatu dute baina Gobernuak hirukoa eraikitzeko baimena eman die soilik. Ziordiarrek jendea ez ezik, motordunak pasatzeko bidea nahi dute. Gobernuak berriz, beste herri batzuetan antzeko eskaerak onartu arren, orain ez du amore eman nahi.

Donesaturdiko



oilarra lumatzen

Juan Kruz Lakasta

Javier Ignacio

Javier Ignacio Bigarren Zabalgunekeko Padre Calatayud kalean jaio zen duela 70 urte. Bere bizitza kasik osoa Bigarren Zabalgunean eman du. Zuzenbide ikasketak egiteko Madrilera joan zen, baina horiek burutu bezain pronto Iruñera, Bigarren Zabalgunean itzuli zen. Harrezkero gutxitan irten da hortik. Nafarroa Beherea etorbidean bulegoa ireki zuen, Bergamin kalean etxea erosi zuen, eta San Miguel elizan ezkondu zen. Jarraian seme-alabak etorri ziren, bederatzi guztira, Jaungoikoak nahi izan zituen guztiak.



Javier Ignaciok bizitzan guztia Jaungoikoak agintzen duen bezala egin du, eta gizaseme guztiek hori egin beharko luketela uste du. Hori dela kausa, erraetan infernuko sua piztu zion trantsizioak: kima luzeak, ikurrinak, dibortzioa, abortoa... Okerrena 1982an heldu zen, gorriak Madrilan botereaz jabetu zirelarik. Iruñean ere presidente gorria hautatu zuten. Hil aurreko infernua.

Zorionez, gorriak pobre alae-nak dira, eta ez daude ohituta dirua eskura edukitzera. Hori dela eta, dirua eskura dutenean hartzen dute, lapurtzen dute. Horri esker, behar bezalako presidentea berreskuratu zuen Nafarroak, bai eta Espainiak ere: biok fededunak, biok atzerakoia. Hil aurreko paradisu.

Javier Ignaciok egunero bazkalostean mus partida jotzen du Kalifornia tabernan. Partidakoen artean bada gorri samarra den bat, eta horrek, atzerakoiek gobernua eskuratu zutenean, jubilatuei pentsioak kenduko zizkietela esaten zuen. Javier Ignacio ziur zegoen ez zela horrelakorik gertatuko, eta irribarre mehar batez erantzuten zion. Orain gorriak leloa aldatu du. Orain dio atzerakoiek Inersoko bidaien bitartez konpondu nahi dutela. Jubilatuek autobuz zaharretan sartzen dituzte errepidean hil daitezkeen. Javier Ignaciok horri ere irribarre mehar batez erantzuten dio, baina jada ez da Inersoko bidaietara joaten. ●

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Euskara ikasi Gure Irratian

Herria astekariak, beste berri askoren artean Gure Irratiak abian jarritako ekimena azpimarratu du, urriaren 30eko zenbakiko orrialdeetan. «Ezagutzen baduzue norbait euskara ikasi nahi duena bere etxean berean, erraiten ahal diozue berri on hau: ikasten ahal duela Gure Irratia entzunez. Larunbatetan, aratsaldeko 5etarik 6etarat, kurtsoaren errepikapena ondoko asteartean, aratseko 7etarik 8etarat. Sail hori segituko da urte bat osoa, jaz agertu Assimil metodoari jarraituz. Erakasleak, euskalzale ezagutu batzu, Marilu

Oxandabarat, Martta Heguy, Henri Duhau eta Daniele Albizu».

Herriak, halaber, euskal departamentua du zenbaki berean aipagai. Euskal Departamentua: hurbiltzeko partez urrutiz? izenburuko artikulua bidez: «Joanden ostirale aratsean CFDT langile sindikatuak gomitatutik bildu dira 180 lagun Euskal departamentuari buruzko debate baten segitzeko. Jean Daniel Chaussier erakaslea, Nicole Pery deputatua eta Renaud d'Elissagaray Hautetsien elkarteak hasi dute eztabaida bat lañoa eta denbora berean

arreguratsua. Oro har hizlari guziak Euskal Departamentuaren aldeko agertu dira ahoan bilorik gabe; beraz kontrakoan argumentuen bipiltzea izan da debatearen funtsa. Trabak beti hor direla zioten denek baina xangrearentzat ikerleek bezala, zergatik diren ezin inondik zila. Betiko trabak hor direla agertu da eta nola gaindi litezkeen ez da bide berriagorik atera. Beraz xiberotarren bertsu hau gogoan dira aintz jaldi bilkura hortarik: 'Botz haren entziñ nahiz herratirik nagi, ni haru hüllant eta hura hürrinago'.

Sarasate Orkestra zulotik atera nahian

Azken urteotan jasaten ari den krisi ekonomikoa gainditzeko Fundazioa eratuko da

Pablo Sarasate Orkestra krisi ekonomiko larrian da azken urteotan. Horri irtenbidea eman nahirik edo, orkestraren gainetik dagoen Santa Cecilia elkarteak urte bukaerarako Fundazioa eratuko du. Bertan, elkarteaz gain, Nafarroako Gobernua izanen da partaide.

PABLO SARASATE ORKESTRA BURUA EZIN GORATUZ dabil azken urteotan. 1879an Pablo Sarasate biolontxelo jole eta musikariak sortu zuen taldea Euskal Herriko orkestrarik zaharrena da. Denbora luzez afizionatu orkestra izan ondoren birmoldaketa franko izan ditu. Arazo ekonomikoa ez dira atzo goizekoak. Gainera, diru eskasiak zuen kalitatea eta ospea galarazi zion. Horretaz oharturik, Nafarroako Gobernuak dirulaguntza bat ematea erabaki zuen 1989an orkestra profesionalizatzeko helburuarekin. Profesionalizazioa iritsi zen eta taldeak izena eta ospea lortu zuen. Nolanahi ere, lehenengo krisiaren atzetik beste larriago bat etorri zen eta egun zulotik atera ezin dabil biolontxelo jole iruindarraren izena daraman orkestra. Azken lau urteotan aurrekontua bera izan du. Ondorioz, musikarien soldata ere bere horretan dago eta kalitatea jaitsi egin da. Orkestra itotzeaz delarik, musikariek behin baino gehiagotan aldarrikatu dute soldata duina eta grebak ere egin izan zituzten joan den urtean.

Krisi ekonomiko larriari irtenbidea aurkitu nahirik fundazio baten beharra aldarrikatu zen jadanik iragan urtean. Jose Joaquin Sagredok

Jose Ortega

«Fundazioak kudeaketa formula bat aurkitu nahi du orkestraren funtzionamendu txarra hobetzeko. Gobernuak lagundu arren, autonomia gehiago emanen dio kolaboratzaileen dirulaguntzak»

joan den udaberrian hartu zuen Santa Cecilia Kontzertu Elkartearen zuzendaritza —Sarasate Orkestra horren menpe dago— eta gogoratu duenez elkartearen eta orkestraren arazoak konpontzeko asmoz hitz egin zen Parlamentuarekin, Gobernuarekin eta beste erakunde batzuekin. Geroztik, zenbait negoziazio izan dira Santa Cecilia-rekin eta Nafarroako Gobernuo Kultura Saileko Principe de Viana erakundearekin.

Fundazioa urte bukaerarako

Sagredok azaldu duenez, bi zirriborro eztabaldatu dira eta orain behin betiko estatutuak egiten ari dira. «Fundazioaren ezaugarriak zein izanen diren esateko goizegi da. Gobernuak zein Santa Cecilia elkartearen fundazioaren patronatuko partaide izanen dira eta beste erakunde batzuk kolaboratzaile. Ildo beretik mintzatu da Jose Ortega, Nafarroako Gobernuo eta Principe de Vianako ordezkaria. «Zirriborroa baloratu ondoren badago estatutu proposamen bat, eta azken ukituak ematen ari dira Gobernuak onar dezan. Kontsultatu da Santa Cecilia-rekin. Nafarroako Kultura Kontseiluko musika batzordearekin eta Iruñeko

Orfeolarekin orkestra eta koroa izateko». Halaber, guztiak ez bada ere kolaboratzaileak zein izanen diren zehaztua dago. Jadanik Nafarroako Aurrezki Kutxa eta Iruñeko Udala prest daude parte hartzeko, eta Iruñeko Kutzaren erantzunaren zain daude. Guztia uste bezala badoa, Ortega dio hilabete bukaerarako fundazioaren estatutuak zehaztuak egon direla.

Estatutuak hiltzen honen bukaerarako bukatuak egon direla uste du Ortega. «Fundazioak kudeaketa

formula bat aurkitu nahi du orkestraren funtzionamendu txarra hobetzeko. Finantza autonomia



Orkestra zuzendari berriak egokitzen ari da pixkanaka.

• LANZA

handiagoa emanen dio kolaboratzaileen dirulaguntzekin. Hori aintzat hartuz, Nafarroako Gobernuarekin duen lotura ez da hainbestekoa izanen, eta kanpoko dirulaguntzak direla medio, aukera gehiago ditu orkestra finantzatzeko. Menpekotasun ekonomikoa beti dagoen arren, ez dago menpekotasun administratiborik eta kudeaketa asko azkartzen da», gaineratu du. Principe de Viana erakundeak ordezkariaren iritziz, Sarasate Orkestrak ondoan dituen orkestrak hartzen ari diren egitura beraren aldeko apustua egin du. «Espainiako orkestra gehienak fundazioaren eredu hartzen ari dira eta horretara egokitzea litzateke».

Gauzak horrela, Sagredok urte bukaera baino lehen fundazioa egituratuta egotea nahi luke.



Pablo Sarasate Orkestrak egunero entsaiatzen du Iruñean duen egoitzan.

• LUIS AZANZA

Ernest Martinez

Sarasate Orkestrako zuzendaria

«Orkestra handitzea nahitaezkoa da»

ERNEST MARTINEZ 35 URTEKO KATALUNIA-ARRA DA. JOAN DEN URRIAREN 31n hartu zuen Sarasate Orkestrako zuzendaritza. Gaur zuzenduko du lehenengoz titular moduan. Bartzelonako Kontserbatorioan ikasia, beste batzuen artean, zuzendu ditu Minskeko Filarmoonika, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Galiziako.

■ **Astelehenean hasi zinen entsegu-ekin. Nola aurkitu duzu taldea?**

Orkestra ezagutzen nuen dagoeneko aurreko bi denboraldietan zuzendari gonbidatu bezala aritu izan naizelako. Egia esan aurreko bi denboraldietan harremana oso ona izan da, oso gustura aritu naiz lanean. Aukera asko dituen orkestra dela uste dut eta berak baino aurrekontu handiagoa dutenen pareko maila du. Nolanahi ere, lan asko egin behar da, eguneroko lanaren diziplina zertxobait falta da.

■ **Orkestrak arazo ekonomiko larriak ditu eta kolokan dago. Nola ikusten duzu aferra?**

Ez naiz batere ezkorra. Orkestra ez dago duela urte batzuk baino okerrago. Orain baikor izan behar dugu. Ohartu gara egoera honek ezin duela iraun. Musikariek lau urte daramatzate soldata igotzea izan gabe, ez eta Kontsumo Prezioen Indizea (IPZ) ere. Orain irtenbidea aurkitzen saiatzen ari dira eta baikor izan behar dugu. Gauzak aldatu behar direla ohartu dira. Fundazio bat eratzeak, espero izatekoa da behintzat, inplikazio handiagoa akerriko du eta horrek dirulaguntza gehiago. Egun dituen arazo artistikoak diru falta horren ondorioz datozkio, eta bide horretan egoki lan egiten ari denez oso baikorra naiz.

eta orkestra handitzeko aukera izanen dugu kordan oreka gehiago lortzeko. Beste zortzi edo hamar musikari behar dira eta bi tronpa. Horrek guztiak, gainera, hobekuntza ekarriko du kalitatean.

Gehiago ezagutarazi

Sarasatek jasaten duen krisia, gehienbat, ekonomikoa bada ere, kritika asko izan ditu ez duelako jakin musika klasikoak gizarteratzen. Sagredok ez du uste hori horrela denik. «Eginahala eginen dugu eta egiten ari gara Iruñeaz kanpo herrietara hurbilduz. Iruñeko Orfeoiak landa, beste koruekin ere kantatzen hasiko gara, hala nola Iruñearekin. Albi berean, beste talde batzuetara ere iritsi nahi dugu: hiriburuko bi unibertsitateak, hirugarren adineko jendea...». Santa Cecilia elkarteak arduradunak dienez, orkestrak ez du dituen bazkideetara mugatu behar, eginkizun kultural bat ere bete behar du.

■ **Fundazioak orkestrak aspaldidantzen dituen arazoak moldatzeko dituelakoan zaude, beraz?**

Baiez uste dut. Dagoen bide bakarra da. Ez da erraza izan, alde bakoitzak bere interesak dituelako. Egia da Santa Cecilia elkarteak bere interesak eta eskubideak gorde nahi dituela eta Administrazioak diru gehiago ematean berme eta erabakiak hartzeko ahalmena nahi izango dituela. Beraz, zaila izanen da ados jartzea eta interesok uztartzea. Dena den, lortu behar da, guztion interesak gordez, azken finean orkestraren onerako izanen delako.

■ **Luis Agirre, zure aurretik zegoen zuzendariaren ildoa jarraituko duzu edo baduzu beste asmorik?**

Jarraituko dudun irizpidea eklektikoa izanen da, estilo ezberdinak nahasiko ditut. Orkestrak partaide gutxi di-

tuenez gero, baditu traba batzuk, eta behartuak gaude beti errepertorio bera jotzera. Horrek aspertu egiten du, bai orkestra bera, bai eta entzulea ere. Hori dela eta, ditugun aukeren artean saiatu behar dugu beste errepertorio batzuk aurkitzen eta nahasten. Ohiko klasiakoez gain badaude beste errepertorio batzuk; batez ere XX. mendeko pentsatu behar dugu eta lan klasi-koekin uztartu behar ditugu.

■ **Egitarian berrikuntzak proposatzen dituzu, baina, era berean, orkestra handitzea premiazkoa dela aipatu duzu.**

Premiazkoa baino, ezinbestekoa da orkestra handitzea. Hori ez bada egiten beti musika beraren inguruan gaude, eta hori ez da ona, nekatu egiten gaituelako. Musika berriak interpretatzen hasteko modu bakarra orkestra handi-

tzea da eta horretarako aurrekontu handiagoa behar da.

■ **Dena den, denboraldi berria aurkeztu zenean XX. mendeko musika baztetuko zela azpimarratu zen, klasiakoez harria ona ez dutela eta. Gauza bera egingen duzu?**

Kontserbatorioan zuzendu nuen orkestraren lehen kontzertua XX. mendeari eskainitako zikloan izan zen. Musika garaikidearekin eta instrumentu berriekin lan asko egiten dut baina ez naiz batere etiketazalea eta, era berean, zikloen aurkakoa naiz. Kontserbatorioko XX. mendeko zikloa kendu izanari ongi deritort, XX. mendeko musika ez delako eskusiboki jo behar. Musika garaikideak bizi behar du beste garaietakoekin batera. Ikuspegi hori zaharkitua dago eta ez da egokia; ez zaio interesatzen ez publikoari ez musikariari.

■ **Iruñeko eta Nafarroako orkestra izatea nahi genuke, gaineratu du.**

Sagredok. Aha! Egin hori gauzatzeko Fundazioa ezinbestekoa dela deritort. «Ondu behar da orkestrak ez dutela dirurik irabazten. Orkestra guztiak diruz laguntzen dira. Izan ere, azken helburua ez baita dirua irabaztea, baizik eta musika ezagutaraztea. Egitarian xumeagoak egin beharko dira, musika ezagunagoa jo jende gehiagorengana hurbiltzeko».

Fundazioa noiz gauzatu zain dauden bitartean, lehenengo alaketak etorri dira orkestrara. Luis Agirrek iragan urriaren 31n Pablo Sarasateren zuzendaritza utzi eta gero, Ernest Martinezek hartu du gidaritza. Martinezek Fundazioaren aldeko apustua egin du. «Musikarien lan baldintzak hobetuko dira eta lana hobekiago egiteko aukera izanen dugu».

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Elbarrendik uskaraz, Erribera euskaldun! (Y)

Hona hemen Erriberako seme argi baten adibide eredugarria:
Zarrakazteluko Marzelino Garde Villafrancaz ari gara naski



Goierrituegirik dagoke euskaldunen erdia, ergoien duegirik, bai alaintso! Euskaldunak oro basaburutarra baiganan! Nor da nor eredu artetik bakar bat ere hobesteko zein gutxieteko? Maite dugu gure herria, baina berezko duen osotasun osoan, eki-ozpel, haize-lauso, argi-nabarra, buzti-oste... Erribera ere bai, ez mintzo solean, baita bere-berea den neurria onartuz ere, bertakoa murrizak nahiz eskuzabak ulertuz. Berantetsiak baikaude beterrri-erbere-erribera-elbarren-zelai izan beharraz, eta Barojak aipatzen zuen hegoren eritasunak jota gaudelako sinismena hasia zaigu barneraratzen, sinismenak oro bezala, uste-okerraren bide-tik, unean uneko zorioneko azkarrak sortu egi borobil eta frogatu ezinaren ildotik. Hau zorabioa!

Nehorri uzkia garbitzera ohituak ez gaude eta. Ando-angoari segiz, bihoa gure haserre ezkelaren eta sumin saminaren deskargu erzoa, zer, nor, eta non garen argi gera dadin. Eta horretan gaudela, zer hobe, gure txokoaniko filosofiaren bitartegai literarioa erabiliz baizik? Hona hemen Erriberako seme argi baten adibide eredugarria, Zarrakazteluko Marzelino Garde Villafrancaz ari gara naski. Barde goitiko herrian 1925.eko urriaren 2an sortu zen, eta apezte ostean, Erronkari ibaxako Uztrotzera bidali zuten apez lanak bururatzera, eta bertan, bizirik zirauten azken euskaldunen ahotik, ekialdeko uskararen jardokia bereganatu zuen. Erronkariera ikasi eta hartan eginiko idazkiak agertzen hasi zen. Bere lehenbiziko olerkia 1954.eko ekainaren 13ko *El Pensamiento Navarro* izenburuko egunkarian agertarazi

zuen, *Erronkari txoriño*, gero-antzean 1954.eko *Euzko Gogoa* literatur aldizkarian arragertuko zen ber, baita Estornesen eskutik karrikara atera *Recuerdo de Erronkari* dibulgazio paper urrian ere 1960. ean. Horixe da olerki bati etekin mardorik ateratzea: *Erronkari-xoriño: Erronkariar euskaldun txikiar biyotzez:*

«Urratzien tartean abia izar-turik / Txoria duk kantetan bedatsa sarturik / Zer egun epel duk, txoriñotxo / Zeuri dun dupean! / Magal xabalik —goixa da goxo— / Txori ñabarra xon xitan / Gore bedatsia lasterka doa / Eta urrustoian, bai, zer onki! / Ai txoriñoa / Negu gorrian, nora yoa yi? ...

...Eltan denian einzlari xuria / Bertze lurretra xoaitan txoria / Gore uskara —txori goxoa— / Abi bellorik erden ezik / Otzez daldaldar erraiten doa / Erkin beino len, nai durilik / Erronkari guziaren txoriak / Ekunen tei bero ta argia / Urrinko bazterretan / Baia uskara —ene gaxoa— / Kain otzagatik, iltra bayoa / Deusezaren eskietan / Ez il kain fite, sart-adi kan / Etxeño baduk bigotz batean».

Gardek erronkarieraz tajutu bigarren olerkia *Anaitasuna* izan zen. Erderaz ere *El último roncalés, Roncal resucitado, Roncalesa celestial* eta *Onki xin gore apez moitia* ondu zuen. Urte hauetan ere, eta ibaxako uskara hiltzera joaten zen batera, ekialdeko hizkera goresteko lehenbiziko saioak

gauzatu ziren, eta horrela, 1967. eta 1968. urteetan Zangozan ospatu lore jokoe-tan erronkarieraz eginiko idazkiak saritzeko asmoa agertu zuen bertako udalak, beti ere, Erronkariko Batzarraren laguntzapean. Lan bat baino gehiago izan ziren aurkezturikoak, eta esan bi urtetan sartu lanak *Erronkariko iror gizon* eta *Grabeliko juratzailearen garaiko* izenburudunak izan ziren.

1963. ean, eta Euskalerriaren Adiskideek antolatutik, Madeleine Jauregiberri maisu zuberotarrak hitzaldi bat ogutzi zuen Iruñeko Hiru Errege izeneko hotelean. Ekitaldia aprobetxatuz, Gardek jarraiko olerki hau eskeini zion, geroago, 1966.eko uztaila-abuztuan Principe de Vianakoek ateratako euskarazko gehigarrian agertarazi zuena: *Jauregiberri andreaken eskietan, Uruñarat xitian, bere herri moitia elerraiteko:*

«Jinkoaren graziaz, haurra nintzekian / Aitzinekoen dela nik entzun barnian / Ikasazak gore uskara hedazak ungu-rui / Berareki mugarik ezta gore artian / Bortiaraino hel-turuk anitx aldiz lañoa / Buria zutik Orhy da gidari zintzoa / Konen bazterren txerka bide zaharra doa / Lanxarra xon eta kor dugu Zuberoa...

... Kantik ekutan dena bai den ekusgarri / Oihanean Larrañe urzo zuri zuri / Sain-tiaren budarra Madalena üduri / Xuberotik norbaitek —semia xin adi— / Izagun eta bertan nik moite dut herria / Artzain laborari eta bai bert-sularia / Batek erraitan deit Berterretxen hiltia / Eztiki sartu zaigu Zubero moitia».

Jauregiberri honela erantzun zion: «Ontsa erran düzü, Erribrakumia, euskerareki ez dela mugarik bortian!».

etorri ahalean

Patziku Perurena



Elejira? Tira, tira...

EUSKALDUNOK OSO trebeak gara, betiko topikoekin bueltaka segitzeko talde berriak sortzen. Badira euskararen eta vascoen inguruko mila elkartetxo gurean, izenez behintzat, beren ekintza zehatz eta bereiztuak betetzeko sortzen direnak, baina, azkenean festatto ergel berberak egin ez bukatzen dituzte beren helburuak. Ez naiz hemen hasiko denen izenak azaltzen, Nafarkari osoa beharko bainuke. Horietako bat, atzen samarrekia, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea dugu. Gogoan izatekoa, elkarte honek egin digun azken ekarpena. Honatx joan den urriaren 17an egunkari honetan bertan leitzen nituenak:

«Elejiraren helburua da, gure dantzari, kirolari, intelektual, kantari, antzerkigile eta hizlariak mugimenduan jartzea, eta sortzen duten kultura ezagutaraztea». Izan ere, UEMaren iritziz, kultur ekimen askok ez baitute egun Euskal Herrian zabaltzeko inolako biderik. Hala ere, UEMako herrietako artistek ez ezik, beste herri batzuetako artista euskaldunek ere parte hartuko dute proiektuaren kalitatea eta aberastasuna jasotzeko.

Asmoak, itxuraz ona dirudi, baina, hona non duzun proiektu berri honen ekarpen miragarria: «Besteak beste, UEMako udalerrietako biztanleek Maixa eta Ixiar, Alaitz eta Maider trikitilariak, bertsolariak, haur ipuinak, Zubietako joaldunak, Migeltxo Saralegi harri-jasotzailea, Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoak eta era guztietako hitzaldiak entzun ahal izango dituzte abendura bitartean UEMaren ekimenari esker».

Ederki! Aspalditik nolana-hiko festamodutan nazkatzeraino ikusiak dauzkagun komedianten *populaxeroenak* eta *komertzializatuenak* ikusteko aukera izanen dugu orain, UEMaren azken mesedeari esker, gure euskal herri kulturagabeotan zi-

nezko kulturaren kalitatea eta aberastasuna jasotzeko. Harra-pazazue! Bertsoak jartzeko modukoa zinetan. Gorriena da, bertsolariek ere, euskararen jito-komertzio berean sartuak daudela, eta ez dutela jatik ere esanen, gure artaburuok pittin bat aletzearen.

Hala ere, xelebreena, uniformizazioaz diotena: UEMaren iritziz, «mundu mailako edo Espainia eta Frantziako makro-egitasmo kultural uniformizazio-zaileen aurrean, dibertsifikatuagoak diren bertako egitasmo eskuhartzaile txikiak baitute arrakasta eta etorkizuna».

Ederto! berriz ere. Gu beti holaxeko ilusoak (edo hipokritak?) izan gara; kanpoko uniformismoa imitatu eta geurean ergelkiro komertzializatu ondoren, jatorra eta *bibertsoa* hau dela esanez, hura gaitzetsi eta bapo! Nik garbi daukat ordea, euskaldunen uniformizaziorik ergelena UEMak euskal herris-kotarako proposatzen digun hauxe berbera dela.

Oraindik gehiago esanen dut: goiko artista sail hori, kanpoko makrokultura komertzial mediokrearen gure neurriko is-pilurik petoena dela, eta horrez gainera, edo horregatik hobe, arlo desberdinetako (kirol, festa, feri, ibilaldi, omenaldi eta abarreko) diru publikoak monopolizaturik dauzkatela, hain zuzen ere, urte guzian zehar, mila zeremonietan derrigorrezko betegarri izaten baitira, eta orain gaitetik, UEMak plus bat emanen die errukiz, batez ere herrixka xoragarriotan beren buruarekin zer egin ez dakiten jendaje deserrotu mediokre horri libertsio *sabatomingero* pittin bat paratzeko. Bejondia!

Nik ordea, garbi aitortuko dizut, alor guztietako apoeuskaldun funtzionari eta bitartekari parasito horien eraginez ugaltzen ari den jito-komertzio erakusketero, espektakulero honi gero eta nazka haundiagoa diodala; beste nonbaitean sumatu izan baitut betidanik zinezko euskal hazia eta grazia.

Ziria

• Motxorrosolo •

Madriren esku

EKIAREN PAREKOA DEN IRRATIAK ANTOLATURIK DAUKA KONTZERTUA abenduaren 12rako. Sorpresa ugari iragarri dituzte. Negu Gorriaren atarian eginen den emanaldian, izan ez zen santuaren izena daraman kantariak Escobar famatuari kargu hartuko omen dio. Konfirmatu gabekoen artean, Tafallako Florencioren dugu. Infernuko soinuaz lagundurik *txoritxoak* abesteko prest azaldu da. Zapuztuko al digu Madrilek horren ikuskizun paregabea?

Enrique Urdanoz

Aerovento-ko zuzendari teknikoa

«Airetaxiaren kultura sortzea da gure ideia»

Enrike Urdanozek Hegoaldeko lehen airetaxi konpainia sortu du: Aerovento. Oraingoz, Beechcraft King Air C-90 sei eserlekuko hegazkinak eta bi pilotuk osatzen dute konpainia. Espainiara zein Europako beste herrialdeetara jendea ez ezik bestelakorik garraiatzeko asmoa ere badute.

zu, handik Parisera eta Parisetik Britainiara. Beraz, joateko egun bat behar duzu eta etortzeko beste bat, eta hegaldia 100.000 pezeta inguru (4.000 libera) kostatzen zaizu, betiere negozio bidaia baldin bada, hau da, egun jakin batean joanez eta beste egun jakin batean etorritik. Bien bitartean, airetaxiarekin egun berean egin dezakezu joan-etorria, sei lagun joaten dira hegazkinean, janariak, hotelak eta aurretzen dituzu... Beraz, negozio bidaia egiten dituztenentzako oso ongi dagoela uste dut. Aurrean aipatutako guztia batzen baduzu merkeagoa da. Egin ditut frogak beste hainbat ibilbidetan eta merkeagoa da. Hegaldi erregularra hartzen baduzu, berriz, seguruenik hiru egun egingen dituzu, bat joateko, bestea bueltatzeko, eta hirugarrena han egoteko. Az-

kenean denbora eta dirua aurretzen duzu. Lagun bakar batentzat gehiegizkoa da eta astakeria litza-teke 120.000 pezeta gastatzea bidaia batean, baina bospasei lagun eramatea ez da gehiegizkoa. Enpresen konbinaketa arazo handiak dituzte. Konbinazio txarrak direla medio, Europako beste herrialdeetatik gertuen gaudenak gara, baina aldi berean urrunen gaudenak. Hein batean behintzat, arazo hori moldatu nahi genuke.

■ **Pertsonez gain, besterik garraiatzea pentsatu duzue?**

Bai, beste aukera batzuk ere aztertu ditugu. Osasunarekin zerikusia duten bi zerbitzu eskaintzeko asmoa dugu. Batetik, organoen garraioa.

Organoak askotan hegazkinez garraiatzen dira eta hemen ez dago horretarako hegazkin jakinik. Iruñean zein Bilboko Gurutzeta ospitalean trasplanteak egiten dira eta bi toki horiek hartuko ditugu aintzat gure garraio zerbitzuak eskaintzeko. Era berean, gaixoak eramateko aukera ere badago.

■ **Hasi berriak zarete. Nolako harrera izan du?**

Astelehen hau izan da gure lehenengo lan eguna eta oraindik hurbilketa frogak besterik ez ditugu egin.

■ **Etorkizunerako zein asmo dituzue?**

Enpresa martxan jartzeko aukera izan dugu eta berria da. Oraingoz, esku bat botatzen ari naiz, baina denborarekin bakarrik ibiliko delakoan nago, nire beharrik gabe. Zein harrera izanen duen ikusi behar da.

→ Irene Arrizurieta

EGURALDI GRISA ETA hodeiak lagun zituela mintzatu zen Urdanoz proiektu berriaz. Noingo aireportutik atera eta lurretik 8.500 oinetara guztiak beste ikuspegia du, eta, are gehiago, hodei tartean hamar minutu igaro eta gero, leihotik Donostiako itsasoa bistatzen bada.

■ **Nola sortu zen ideia?**

Idea duela hamar urte izan genuen, baina ez dugu orain arte gauzatu. Piloto pribatuaren karneta duela hogeitaz atera nuen eta garai hartan Carlos Eugi (pilotoetako bat) nire irakaslea zen. Geroztik hegazkintzarekin zerikusia zuen zerbituetan sartu nahi genuen eta orain momentu egokia iruditu zaigu. Hemen ez dugula deus konturatu gara eta oso gaizki komunikatuak gaudela. Ideia ongi gauzatu daitekeela uste dugu.

■ **Herrialdean ekimena berria da. Zer asmorekin sortu da Aerovento?**

Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) ez da horrelako asmorik ezagutzen. Nolanahi ere, gure azterketen arabera, herrialdean zein EAEn hegaldi erregularretan bi milioi eta erdi lagun ibiliko dira. Beraz, datu horiek ikusirik merkatu potentzial handia dago. Bestalde, Iruñera egunero iristen da hegaldi pribatuaren bat, dela negozio bidaia dela trasplanteren bat egiteko erietxe batean. Sondikan ere badago mugimendua. Egunero batez-beste hiru iristen dira, eta, aldiz, handik ez da bat bera ere ateratzen. Hemen ez dago airotaxiaren kulturarik eta gure ideia hori sortzea da. Egin baditzakegu ere, gure asmoa ez da bidaia erregularrak egitea,

baizik eta zerbitzu jakin batzuk eskaintzea.

■ **LAN (Nafarroako Airelineak) hegazkin konpainiak itxi berriak ditu ateak. Haren porrota ikusirik, ez al da arriskugarria horrelako konpainia bat bultzatzea?**

Bai, askok galdetu digute, nola ulertu daitekeen gure ekimena. Konpainia bat hiltzen ari da eta guk beste berri bat soteak badu arrazoirik. Airelineak ez du funtzionatzen ez bidaiaririk ez dagoelako, baizik eta egiten den kudeaketa txarra delako. Azken datuen arabera, urtero hemen, Euskal Herrian (Hegoaldean) %25 igotzen ari da bidaiari kopurua, eta, hala eta guztiz ere, enpresa horrek porrot egiten du. Beraz, porrotaren arrazoiak ez da bidaiari falta, kudeaketa txarra baizik.

■ **Dena den, 120.000 pezeta (4.800 libera inguru) kostatzen da bidaia ordu bakoitza.**

Enrike Urdanoz iruindarrak aitortu duenez, bi bokazio izan ditu beti: zinema eta hegazkinak. «Nik, gazteagoa nintzenean, hegazkinean ibili nahi izan nuen, baina ikusmen arazoak zirela medio ez nuela horretarako balio eta ezin nuela pilotua izan esan zidaten», gogoratu du.

Hegan egiteko ideia baztertu gabe, eta ingeniari-tza ikasi bazuen ere, ikus-entzunezkoen arloan ibili da beti. Espainiako Telebista kate publikoan urte asko kamera lanetan aritu eta gero, ITP produktora sortu zuen duela hamar bat urte.

Produktorearekin Negu Gorriak edo Barricada taldearen bideoak egin izan ditu. Egun, beste gauza batzuen artean, Madrilén, Iruñean eta Errumanian grabatu ondoren *El sudor de los ruidosos* pelikula montatzen dihardute. Urte bukaeran estreinatuko dute Nafarroako hiriburuan.

■ **Garraio bide hori ez dago edozeinen eskura.**

Lagun bakar batek ezin du hainbeste ordaindu, baina talde batek bai. Hegaldia sei lagun artean zatitzen baduzu lehiakorra izan daiteke eta ohiko hegaldi ba-

ten prezioan gelditzen da. Madrilera eta Bartzelonara bidaia asko dituzu, eta askotan ez da errentagarria izanen; baina Tolosa edo Britainiara joaten bazara, zein alternatiba dituzu? Lehenik eta behin Miarritzera joan behar du-



soslaia

• ostirala • 1997ko azaroaren 7a

ZALDI EROA

